

Unibertsitate-ikasleen ia erdia gizarte-zientzietan eta zuzenbidean matrikulatu zen

Arlo guztietan emakumeak gehiago dira, irakaskuntza teknikoetan izan ezik

2007-08 ikasturtean 65.101 ikasle matrikulatu ziren Euskal AEko unibertsitateetan. Haien arteko %47 arlo sozial eta juridikoan, Eustaten datuen arabera. Aurreko ikastaroaren aldean, matrikulazioak %-2 gutxiago izan dira, azken 13 urteetako joerari eutsiz.

Lurraldez lurralde, matrikulatutako guztien %55 Bizkaian aritu ziren, %31 Gipuzkoan eta %14 Araban.

Matrikulatutakoen %55, emakumezkoak, joan den ikasturteko ehunekoaren antzera. Zentroen titulartasunari dagokionez, ikasleen %78 publikoetan matrikulatu ziren.

Matrikulatutako ikasleria, ziklo eta ikasketa adarraren arabera. 2007-08

	Guztira			Bigarren Zikloa ⁽¹⁾			Lehen Zikloa ⁽²⁾			Graduatu ondokoak ⁽³⁾		
	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak
TOTAL	65.101	29.366	35.735	35.714	15.363	20.351	25.935	12.468	13.467	3.452	1.535	1.917
Zientzia Esperimentalak	3.372	1.212	2.160	2.924	1.119	1.805	293	29	264	155	64	91
Giza zientziak	6.106	2.272	3.834	5.493	2.003	3.490	53	21	32	560	248	312
Osasun zientziak	3.888	748	3.140	2.369	511	1.858	1.141	136	1.005	378	101	277
Zientzia sozial juridikoak	30.790	10.619	20.171	16.300	6.077	10.223	13.252	4.008	9.244	1.238	534	704
Irakaskuntza teknikoak	20.346	14.280	6.066	8.628	5.653	2.975	11.196	8.274	2.922	522	353	169
Ez da agertzen	599	235	364	0	0	0	0	0	0	599	235	364

(1) Bigarren zikloa gainditzeak lizentziadun, ingeniari edo arkitekto titulua eskuratzea dakar.

(2) Lehenengo zikloa gainditzeak diplomatu, ingeniari edo arkitekto tekniko titulua eskuratzea dakar.

(3) LRU doktoretza ofizialeko programetan eta graduatu ondoko programa ofizial berrietan (master eta doktoretzetan) matrikulatutako ikasleria

Iturria: Eustat

Gizonek prestakuntza teknikoagoa aukeratzen dute

30.790 ikaslek egin zituzten arlo sozial eta juridikoko ikasketak. Hori matrikulazio guztien %47 da. Bigarren, 20.346 ikaslek (%31k) Ikasketa Teknikoak aukeratu zituzten, eta Giza Zientzietan 6.106 matrikulatu ziren. Prestakuntza sanitario eta esperimentalak aukeratutakoak 3.888 eta 3.372 izan ziren, adar bakoitzaren %6 eta %5.

Emakumeek presentzia nabarmena dute ia adar guztietan, %63 direlarik, batez beste, zientzia sozial eta juridikoetan, esperimental eta giza zientzietan. Osasun arloan emakumeak gehiago dira, eta gero eta gehiago, hamar matrikulaziotik zortzi. Salbuespena irakaskuntza teknikoak dira, nonbait erakargarriagoak zaizkie gizonei, emakumeak %30 direlarik.


Lizentziatura eta diplomaturetan izaten dira ikasle graduatuen portzentajerik handienak.

2007-08 ikasturtean 12.489 ikaslek bukatu zituzten unibertsitate-ikasketak; %58 emakumeak.

Ikasketa motaren arabera, 4.175ek lizentziaturaren bat lortu zuten, %39k. Ondoren diplomaturak datoz, 3.066 (%29) eta arkitekturak eta ingeniariak, bai goi-mailakoak, bai teknikoak: 1.703 eta 1.681, %16.

Graduatu ondokoetan, 1.561 ikaslek hirugarren zikloa (ikertzeko nahikotasuna) bukatu zuten, doktoretza egiteko gaituz; 313k master ofizialen bat bukatu zuten, eta 303k doktoretza.

Graduatutako ikasleak, ikasketa mota eta sexuaren arabera. 2007



Iturria: Eustat

Hona hemen graduatu gehien izandako titulazioak: irakasle eskola (1.366), industri ingeniariak teknikoak (874), enpresa administrazioa eta zuzendaritza (790), enpresa-zientziak (596) eta industri ingeniariak (447). Emakumeak bakarka hartuta: irakasle eskola (1.072), enpresa administrazioa eta zuzendaritza (487), enpresa-zientziak (353), erizaintza (308) eta psikologia (270).

Unibertsitate-irakasleen plantilla %5,4 hazi zen

Euskal AEko unibertsitateetan, 2007/08 ikasturtean, 7.628 pertsonak lan egin zuten, aurrekoan baino %5 gehiago. Haietarik %45, 3.449, emakumeak.

5.592 irakaslek osatzen dute plantilla, aurreko urtean baino %5,4 gehiago. Hamar irakasletatik lau emakumeak ziren. Ez-irakasleak, 2.039 pertsona.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Posta elektronik.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Maite Ugarte Barcina

+Tlf: +34-945-01 75 47 Faxe: +34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp